

Tubacex-eko lan baldintzak prekarizatzea ez da konponbidea

Tubacex-ek atzo argitaratu zuen prentsa oharra aztertu ondoren, bereziki larria iruditzen zaigu burutu nahi duten produkzioaren deslokalizazioa. Asmo hori jada erakutsi ziguten EEEn aurreko negoziaketetan. Lan baldintzen jaitsiera onartzeko erabili zuten Abu Dabin produkzio lantegiak sortzearen mehatxua. Horren ostean, EEEn aplikatu ziguten taldea barruan txikiagoak bihurtzeko asmoz. Atzo, baieztatu zen da instalazio berriak sortuko dituztela lan baldintzarik ere ez dagoen herrialdeetan.

Atzokoa ez zen albiste on bat izan LABentzat, ezta euskal gizarte osoarentzat ere. Gu plan honen aurka agertu ginen, eta horren aurka borrokatu genuen. Zoritxarrez, enpresa komiteak onartu egin zuen hitzarmenean adostutako baldintzak ez betetzea eta lan orduak gehitu zizkiguten.

Orain, Eusko Jaurlaritzari dagokio zerbait esatea, enpresari enpleguaren suntsiketan babesa eman zioten, lan baldintzen prekarizazioan, lanaldia handiagotzen eta soldata izozten.

Ezin izango dugu inoiz prekarizazioa borrokatu sortuko dituzten lantegi berri hauen aurrean. LABen beti izan dugu argi; orain, zuzendaritzaren mezuak modu akritikoan errepikatzen zituztenek jakitea falta da.

Euskal Herrian, 2022ko ekainaren 23an